

SARA COZAR

Karteleran zein bestela: hil arte bizi.

| SUSTRAI COLINA |
Argazkia: Sara Cozarrek utzia



«Entretenimendu hutsari kontra egin behar diogu»

Urte osoan zine-aretoak hutsik eta denak Zinemaldiaren zain!

Zinera joaten ez den jendea zinemaldiko ilara amaigabeetan ikustean auzo-lotsa sentitzen dut. Folklorearen da, festa, kalean ez dakit zein famatu ikusteko aukera... Bakoi-tzak egin dezala nahi duena, baina koheren-tziari buruzko leziorik eman gabe.

Donostian ez dagoela kultur mugimendurik diote progre guai koherenteek.

Ez da izango Alde Zaharrean tragoak hartzea gehiago gustatzen zaigula eta, gauerdian, txispatuta, "Donostian ez dago ezer!" haserretzen garela? Ba bazegoen, baina gu pintxoak jaten geunden!

ETB1eko fikzio eskaintza oparoarekin entretenitzen ginela esan behar nizan, baina...

Batetik ETBk fikzioa behar du, eta bestetik beste mota bateko fikzioa. Dena oso garbia, txuria, eta puritana iruditzen zait. Zergatik ez *Sex and the city* bezalako telesail bat Donostian? Amonei izugarri gustatuko litzaieke!

Edertasun kanonen diktaduran jausten ez garen bitartean...

Ez dut uste itsusia edo polita izatea denik kontua, zera berezi hori edukitzea baizik. Begira Carmen Machi, ez da bereziki ederra, baina bere bizitza osoan egin du lan, aktore bikaina delako. Horixe da irauteko dugun euskarri bakarra.

Antzerkiak Euskal Herrian irauteko duen euskarria komedia den bezalaxe?

Euskal Herrian ez dago antzerkirako ohitura handirik eta jendeak komediak nahi ditu, barre egin, gutxi pentsatu. Horri kultura programatzeko dirurik ez dagoela gehituz gero tarte txikia geratzen da, baina entretenimendu hutsari kontra egin behar diogu.

Lehenbizi, esplikatuz jendearen lanbidea ez dela farandula bakarrik!

Zergatik begiratzen diogu oker farandulari? Noiz ohartuko gara antzezpen bakoitzaren atzean dagoen lanaz? Ulertu nezake fabrikaren zortzi ordu lan egiten duenarentzat mundu eroa izatea gurea, baina agian niretzat harena eragoa da.

Ez didazu botako purrustadarik zuen lanbidearen prekarietate eta segurtasun ezagatik?

B plan batekin izugarri lasaitzen naiz eta ez naiz nire burua aktore lanetan ez bada inon ikusten ez duen horietakoa. Ate andana daukat irekitzeki. Hori bai, gehien gustatzen zaidana itxi arte ez nituzke ireki nahi.

Lasai, egiten duzuna egiten duzula, *Goenkale*-ko Mimi izango zara beti.

Putakeria litzateke ez banu beste ezer egin, baina beste erregistro asko lantzeko aukera izan dudanez, arazorik ez. Gainera, Mimiri kariñoa diot, nahiz eta azkenerako ez nekien zer pentsatzen zuen berak eta zer nik. ■

